2025

Urteko jarduera-txostena



cyber zaintza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

01. Balio-proposamena 2
02. 2025 zenbakietan 5
03. Zaintza zibersegurtasunean 8
04. Beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean egindako ekimenak 12
05. Harreman instituzionalak 15
06. Presentzia kongresuetan 19
07. Beste foro interesgarri batzuk 23
08. Zibersegurtasunean talentua bultzatzea 26
09. Herritarrak kontzientziatzea eta sentsibilizazioa 29
10. Sariak 33
11. Komunikabideetan agertzea eta kolaborazioak 35



01
Balio-proposamena

Cyberzaintza – Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzenbide pribatuko ente publikoa da; nortasun juridiko propioa du, eta Segurtasun Sailari atxikita dago.

Cyberzaintzaren xedea zibersegurtasuna sustatzea eta koordinatzea da euskal sektore publikoan, sektore horren eskumeneko informazio-sistemen segurtasunaren eta sare elektronikoen segurtasunaren esparruan; baita zibersegurtasuneko gaikuntzaren eta garapen digital seguruaren alde egitea eta horiek bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoan, bertako administrazio publikoan, bertako enpresa-sarean eta biztanleriaren artean.

Balio-proposamena

Cyberzaintzak bere balio-proposamena aurkezten du, bere egitekoa bete eta Zibersegurtasunaren Euskal Estrategiarekin bat etortzeko. Euskadin zibersegurtasuna indartzeko neurriak eta ekintzak sustatzea da proposamenaren helburua, eta, horri begira, lankidetza, kontzientziazioa eta informatika-sistemen eta datu sentikorren babesa bultzatzen ditu.


- Euskadin zibersegurtasuna sustatzen dugu.
- Beste batzuekin koordinatzen dugu zibersegurtasuna, Euskadin bertan eta kanpoan.
- Zibersegurtasunaren Euskal Estrategiarekin eta aplikatzekoa den lege-esparruarekin bat gatoz.
- Estandarrak eta jarraibideak ematen ditugu.
- Gobernantza, prebentzio, detekzio eta erantzun zerbitzuak ematen ditugu.
- Euskal sektore publikoa, enpresa-sarea eta herritarrak ditugu xede.

Jarduera-esparrua

Jarduketa-eremuari dagokionez, Cyberzaintzako zerbitzuak kategoria hauen arabera sailkatzen dira:


Prebentzioa

Segurtasun-gertakari posibleak gertatu aurretik saihestera bideratutako zerbitzu guztiak sartzen dira hemen.



Antzematea

Segurtasun-gertakariak goiz identifikatzea, sistemak eta erremintak erabilita.



Erantzuna

Segurtasun-gertakaria detektatu ondoren behar diren zerbitzuak biltzen ditu.



Gobernantza

Zibersegurtasuna modu integralean kudeatzeko behar diren jarraibideak eta egiturak ezartzen ditu.



Zer-nolako zerbitzuak eskaintzen ditugu?

Cyberzaintzak askotariko publiko objektiboa du xede, besteak beste euskal sektore publikoa, enpresa-sarea eta herritarrak. Ingurune bakoitzeko zibersegurtasun-premiak berariaz jorratzea eta zerbitzuak premia partikular horietara egokitzea da segmentazio horren funtsezko helburua.



Sektore publikoa

- Administrazioa
- Segurtasuna
- Osasuna
- Hezkuntza

Enpresak

- Enpresa estrategikoak
- Autobabes-arloan betebeharrak dauzkaten enpresak
- Beste enpresa batzuk

Herritarrak

- Adingabeak
- Helduak

cyber zaintza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2025



02
2025 zenbakietan

Cyberzaintzan jakin badakigu zibersegurtasuna urtean zehar bultzatutako ekintza ugariren bitartez indartzen dela. Hori dela-eta, hainbat ekimen burutu ditugu 2025. urtean zehar, prestakuntza-prometatik eta kontzientziazio-jardueretatik hasi eta informazio giltzarria hedatu arte, eta, horrela, ekimen bakoitzak babes digitala hobetzen lagundu du. Jarraian, Euskadin lortutako inpaktua eta irismena islatzen duten datu adierazgarrienak aurkeztuko dira.

Jardueraren inpaktua

29 Artikulu/ prentsa-ohar.

44 Infografia eta eduki.

15 Ikus-entzunezko eduki.

69 Aipamen hedabideetan.

15 Parte-hartze ekitaldietan.

16 Elkarrizketa.

3 Kontzientziazio-kanpaina.

624 Azken orduko alerta.

Inpaktu digitala

Sare sozialen bidez zabalduta

220 kontzientziazio-mezu herritarrentzat.

106 mezu tekniko enpresa eta profesionalentzat.

29 smishing alerta.



18.177 pertsona lortu dira.

3.482 erreakzio.



'Cyberzaintza zurekin doa' kontzientziazio-kanpaina

4.079.103 pertsona lortu dira.

241.859 erreakzio.



"Hartu arnasa. 1.2.3. Klik" kanpaina


3.503.414 pertsona lortu dira.

22.142 erreakzio.

"Ziberrean, Zibersegurola" kanpaina

23.777 pertsona lortu dira.

1.581 erreakzio.







03
Zaintza zibersegurtasunean

Zibersegurtasuneko zaintzaren ikuspegitik, 2025.urtea intzidente asko kudeatutako urtea izan zen, aurreko urtean baino %51,3 intzidente gehiago kudeatu baitziren. Kasurik ohikoenak iruzurrekin lotutakoak izan ziren, eta, ondoren, baimenik gabe sartzeko saiakerekin lotutakoak. Horrek, berretsi egin zuen ingurune digitaleko mehatxu nagusien bilakaera eta iraunkortasuna.

1.914 gertakari kudeatu dira




1.001 Iruzur. %52,30




361 Intrusio. %18,86



211 Programa maltzur. %11,02



119 Kaltebera. %6,22



78 Kontsulta. %4,08




47 Neurri gabeko eduki. %2,46



41 Informazio-konpromiso. %2,14



35 Eskuragarri-tasuna. %1,83



13 Beste batzuk. %0,68



8 Intrusio-saiakera. %0,42

764 Euskadin desegindako iruzur-kanpainak, horietatik 60 Ertzaintzarekin lankidetzan.

Cyberzaintzan egunero sortzen ditugu kalteberatasunari eta malwareari buruzko txostenak eta gertakari nabarmenekin lotutakoak, inpaktu esanguratsua duten zibermahatxuak eta horien bilakaera ikusarazten laguntzen baitute, baita lege-aldaketak, bilakaera teknologikoa eta jardunbide egokiak ezagutzen ere.

213 argitalpen eginda



31 Malware txosten.



113 Kalteberatasun txosten.



60 Segurtasun-buletin..



9 Beste mota batzuk.

NoName057 taldearen erasoak

Cyberzaintzak hainbat zibersegurtasun abisu eman zituen euskal erakundeei, martxoan zehar Errusiaren aldeko NoName057 taldeak zerbitzua ukatzeko erasoak egin baitzituen. Cyberzaintzak, lan egiten duen konfiantzazko sareekin koordinatuta, helburuen zerrenda eskuratu zuen etapa goiztiarretatik, eta mehatxatutako erakunde guztiak ohartarazi ahal izan zituen erasoak gertatu aurretik.

Emandako abisuez gain, eskuratzen genuen informazio guztia partekatu genuen, erakundeen informatikako eta telekomunikazioetako taldeek beren azpiegitura erasoen aurka indartu eta eragina arindu ahal izate aldera.

Zibersegurtasunaren arriskuak eta mehatxuak osasunaren sektorean

Osasun-sektorearen digitalizazio azkarrak onura ugari ekarri ditu, baina, sektore horretako erakundeen aurkako kalteberatasuna eta eraso-kopurua ere nabarmen handitu da.

Txosten honetan zehazten dira osasun-arloan eragina duten arrisku eta mehatxu nagusiak, teknologia digitalak modu intentsiboan erabiltzetik eta oso sentikorra den informazioa kudeatzetik eratorritakoak. Era berean, zibersegurtasunaren neurriak indartzeko beharra azpimarratzen da, asistentziaren jarraipena eta pazienteen datuen babesa bermatzearren.




Dokumentua ikusi

Euskadin eragina duten talde kriminalek zer modus operandi izan duten 2025eko lehen seihilekoan

Euskadin inpaktua izan duten mehatxuak identifikatzeko eta monitorizatzeko prozesua jarraitu da, erakunde publiko zein pribatuen nahiz herritarren arriskua arintzen duten ekimenak abian jartzeko.

Eragin handiko 67 gertakari aztertu ditugu, guztiak ere arrisku handi, oso handi edo kritikokoak, hala sailkaturik baitaude zibergorabeherak kudeatzeko CCN-STIC 817 gidan.




Dokumentua ikusi

2025eko lehen seihilekoan identifikatutako ransomware-jarduerak

Ransomware-taldeen jardueraren datu kuantitatiboak eta kualitatiboak adierazten dira, egungo egoera eta datozen hilabeteetarako bilakaera-joera ebaluatu ahal izateko dokumentu honetan.

Txostenean, aztertutako aldian zehar jarduera handiena erakutsi duten ransomware-taldeak nabarmentzen dira, aldi horretako biktima kopuruari dagokionez, baita iraganean oso aktiboak izan ziren taldeak desagertu edo desegin ondoren sortu diren mehatxu berriak ere.




Dokumentua ikusi

2025eko lehen seihilekoan identifikatutako ahultasunak

2025eko lehen seihilekoan identifikatutako kalteberatasunei buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak, egungo egoera nahiz aurtengorako joera ebaluatu ahal izateko egindako txostena.

Dokumentuan, seihileko horretan ahulgunerik nabarmenenak non gertatu diren azpimarratzen dira, aktiboki ustiatzen ari direnak eta biktima-kopuru handiena dutenak.



Dokumentua ikusi



04

Beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan egindako ekimenak

Euskal erakunde publikoen arteko lankidetza funtsezkoa da zibersegurtasunerako, ekosistema erresilientea eta bateratua sortzen baitu mehatxuei buruzko informazioa partekatzeko, zibersegurtasun-gertakarien aurreko erantzunak koordinatzeko eta Euskadiko subiranotasun digitala indartzeko. Era horretan, administrazioa nahiz enpresa-ehuna babesten dira, eskualde-mailako ziberresilientzia eredu bat lortzeko bidean aurrera egiten da eta Euskadi Europako erreferente gisa kokatzen da.

Zibersegurtasunaren erakundearteko mahaia osatzen duten erakundeak indartzeko simulazioa


Ziberkrisi baten simulazioa egin genuen Euskadiko zibersegurtasunaren erakundearteko mahaia osatzen duten 13 erakunderekin (Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako erakundeak, hiru foru-aldundiak eta haien Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sozietateak, EAEko hiru hiriburuetako udalak, EUDEL, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Izenpe). Helburua izan zen mehatxu teknologiko batek eragindako krisi-egoera baten aurrean erakunde horien prebentzio, babes, arintze, erantzun eta berreskuratze gaitasunak hobetzea.



Euskal sektore publikoan zibersegurtasuneko gertakarien kudeaketa sendotzeko gida

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarekin batera, “Euskal sektore publikoko entitateentzat zibersegurtasun-gorabeheren kudeaketari buruzko oinarrizko gida, 2024-2029” aurkeztu dugu; hau da, bi erakundeen artean elkarlanean egindako dokumentua, arlo publikoan zibersegurtasun-gertakarien aurrean erantzuteko gaitasuna indartzeko helburu duena.


Gidan gertakariei erantzuteko ziklo osoa jorratzen da, prestaketa eta detekziotik hasi eta hauen ondorengo berreskuratze eta jardueretaraino, DBEAri eta Cyberzaintzari segurtasun-arrakalak jakinaraztea nahiz kaltetutako pertsonei horren berri ematea barne, beharrezkoa denean.



Dokumentua ikusi

Zibersegurtasun-arloko jarraitutasun-plana egiteko laguntza-gida

Gida Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin elkarlanean egin da, eta helburua erreferentzia-esparru integral bat ezartzea da, erakundeei zibersegurtasunaren arloko gidalerroak eta Jarraitutasun-planak egiteko, inplementatzeko eta modu eraginkorrean mantentzeko beharrezkoak diren gutxieneko irizpideak identifikatzeko, egituratzeko eta aplikatzeko lana erraztearren. Era horretan, zibersegurtasuneko zibersegurtasun-gertakarien aurrean erresilientzia operatiboa izatea bermatzeaz gain, indarrean dagoen araudia beteko da.



Dokumentua ikusi

Zibersegurtasuneko larrialdiekin lotutako LABI aktibatzeko prozedura

Eskala handiko zibersegurtasuneko larrialdien aurrean, Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) aktibatzeko prozedura onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta, horrela, protokolo espezifiko bat duen lehen autonomia-erkidegoa izatera iritsi zen Estatuan.

LABI Cyberzaintzak eskatuta edo zibersegurtasun-gertakari baten larritasunaren, hedaduraren edo eraginaren arabera aktibatzen da, baldin eta oinarrizko zerbitzuak, azpiegiturak edo sistema publikoen funtzionamendua arriskuan jartzen bada, herritarren segurtasunean eragina izanik.





05

Harreman instituzionalak

Andaluziako Agentzia Digitala

Andaluziako Agentzia Digitalaren bisita jaso genuen, eta gure estrategiak eta erronkak bateratzeko aukera izan genuen, esperientziak partekatzeko bide berriak irekitzeaz gain. Gainera, Cyberzaintzaren sorrerarainoko bilakaera eta zibersegurtasuneko euskal estrategiaren hedapena azaldu genituen.



Cyberzaintzaren Administrazio Kontseilua

2025eko lehen kontseilua aurreko urteko datu garrantzitsuenei buruzko hausnarketa egiteko. Bileraren buru Segurtasuneko Sailburua den Bingen Zupiria eta gure zuzendaria den Javier Dieguez izan ziren. Bileran, urteko kontuak, aurrekontua betetzeari buruzko memoria eta 2024ko Jarduera txostena ere onartu ziren.





Cyberzaintzaren Aholku Batzordea

Talde aholkulari honetako kide berriei ongietorria emateko bilera. Taldea hainbat diziplinatan espezializatutako 11 pertsona osatzen dute, sektore publikokoak zein pribatukoak. Bileran, halaber, bertatik bertara ezagutu ahal izan genituen Cybertzaintzaren Plan Estrategikoa, Zibersegurtasunaren Euskal Estrategiari lotutako jarduera-planak eta Zibersegurtasunaren aldeko Euskal Akordioa.

Javier Dieguez 5. aldiz hautatu dute Europako eskualdeen ordezkari, ECSOren Board of Directors batzordean

Batzorde horren bidez, Euskadik lotura zuzena du Europako erakundeekin eta erabakiak hartzeko ardura dutenekin, zibersegurtasunaren sektorean politikak eta ekintzak trakzionatzeko.





Cyberzaintzaren bigarren Administrazio Kontseilua 2025ean

Zibersegurtasunaren Euskal Agentziaren bigarren Administrazio Kontseiluan, azken kontu-auditoretzaren behin betiko txostenak entregatu ziren, Aholku Batzordearen bileraren balantzea partekatu zen, eta Agentziaren Estatutuak aldatzeko proposamena eta 2026ko aurrekontuen aurreproiektua aurkeztu ziren.

Nuevo Leongo Estatuko Gobernua

Nuevo Leongo (Mexiko) Gobernuko ordezkaritzaren eta Nuevo Leongo Unibertsitate Autonomoko (UANL) Monterreyko Teknologikoko ordezkarien bisita izan genuen. Bileran, zibersegurtasuneko ekosistemak eta digitalizazioa indartzeko sinergiak eta ikaskuntzak partekatu genituen.



Kataluniako Agència de Ciberseguretat

Kataluniako Agència de Ciberseguretat erakundearen bisita izan genuen, zibermehatxuen aurrean erresilientzia babesteko eta indartzeko gure lanean jardunbide egokienetatik ikasten jarraitu ahal izateko. Informazioa eta sareko lana partekatzea, erakundeen arteko komunikazio on batekin, funtsezkoak dira.






European Ciberweek Rennes

Javier Dieguezek Europako eskualdeen ordezkari gisa parte hartu zuen ECSOren Board of Directors batzordean; bertan, Cybersecurity Smart Regions ekimenaren barruan zibersegurtasunarekin lotutako eskualdeko jarduerak kartografiatzea proposatu zen. Euskadiz gain, honako eskualde hauek izan zuten ordezkaritza: Valonia (Belgika), Bretainia (Frantzia), Gales (Erresuma Batua) eta Norrbotten (Suedia).

Cyberzaintzaren hirugarren Administrazio Kontseilua 2025ean

Jardunaldi honetan Zibersegurtasunaren aldeko Euskal Itunaren Batzorde Estrategikoaren eta Jarraipen Batzordearen eraketa aurkeztu ziren, baita Batzorde Taktikoa eta hiru ekintza-foku nagusiei (herritarrak, sektore publikoa eta sektore pribatua) dagozkien batzorde operatiboak ere.





Esloveniako enbaxada

Bilera bat egin genuen Esloveniako enbaxadorea den Tadej Rupelekin eta Amerisa Kurbegovic Ministro Sailburuarekin. Bileran jakinarazi zitzaien nola Cyberzaintzak gidatu duen Euskadiko Zibersegurtasunaren Estrategiaren diseinua, datozen urteetan arlo horretako jardueren lerrokatzea indartzeko helburuarekin.



06
Presentzia kongresuetan

“Konputazio Kuantikotik Segurtasunera” ekitaldia

Iratxe Martinek “Aro aurrekuantikotik aro postkuantikorako trantsizioaren premia” mahai-inguruan parte hartu zuen, eta konputazio kuantikoak zibersegurtasunaren arloan planteatzen dituen erronkak eta aukerak aztertu zituzten. Iratxek arriskuei aurre hartzearen eta jarduteko mehatxua gauzatu arte ez itxarotearen beharra nabarmendu zuen.





ECSO Awards Final

Javier Dieguezek ‘Building European Cyber Capabilities: How to Bridge the Funding Gap’ panelean parte hartu zuen. Bertan, Europan sortzen ari diren enpresei laguntzeko beharra azpimarratu zen, eta, bereziki, inbertsio-funts eta -ekimen berriak sustatzeko beharra. Horrez gain, Europak eragile globalen artean lehia bizia duela azpimarratu zen, batez ere Estatu Batuak eta Txinarena.

“Azpiegitura Estrategikoak, haien erronkak eta estrategia Euskadin” jardunaldia

Javier Dieguezek SPRIk antolatutako jardunaldian hartu zuen. Bertan, Zibersegurtasunaren Euskal Estrategia aurkeztu zuen, eta Euskadiko azpiegitura estrategikoen erronka nagusiak eta jarraitutasun operatiboa aztergai izan zituzten. Halaber, “made in Euskadi” eskaintza teknologikoa indartzeko erronkak eta aukerak ere landu ziren.





Zibersegurtasuna: nola babestu mehatxu isilaren aurrean

Javier Dieguezek Bilbao Metropoli 30ek eta BasquePRO Elkargoak Kontseilu Gorenak antolatutako mahaian parte hartu zuen, eta zibersegurtasuna lehentasun estrategiko gisa eta ziberdelinkuentziari aurre egiteko lankidetza publiko-pribatuaren garrantzia azpimarratu zuen.

ISMS Forum Euskadi 2025 III. Lurraldeko Forua

Javier Dieguezek ireki zuen ISMS Forum Euskadi 2025 III. Lurraldeko Forua. Topaketan zibersegurtasun industriala garapen ekonomikoaren ardatz gisa, arrisku berrien identifikazioaren garrantzia eta Adimen Artifizialak planteatzen dituen erronkak aztertu ziren.





Cyberindustry 2025

"Zibersegurtasuna hornikuntza-katean" mahai-inguruan, Asier Martinez gure lankideak enpresa-ekosisteman erakunde publikoek hornitzaile pribatuekin lan egiten dutela azpimarratu zuen eta horiek zibereraso baten aurrean sentikortasun-maila oso desberdinak izan ditzaketela.

Roadshow ISACA Bilbao

Javier Dieguezek ireki zuen kongresu hau, eta Zibersegurtasunaren Euskal Estrategiak gero eta ugariagoak diren zibermehatxuei aurre egiteko duen garrantzia azpimarratu zuen. Horrez gain, CRA araudia, Adimen Artifiziala eta "Quantum Computing" bezalako erronkak jorratu zituzten.





Smart City RECI V. Kongresua

Javier Dieguezek moderatu zuen “Gobernantza Digitala eta zibersegurtasuna Autonomia Erkidegoetan: Administrazio seguruago baterako erronkak eta estrategiak” izeneko mahai-ingurua. Bertan, eskualdeko agentzien arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu zen, herritarrak babesteari eta zibermehatxuen aurrean eredu federatua indartzeari begira.

Erakundeen arteko lankidetza, funtsezko tresna

Smart City RECI V. Kongresuaren barnean, Asier Martinezek EJIEren eta Cyberzaintzaren arteko lankidetza aurkeztu zuen arrakasta-kasu gisa, konfiantzan eta gertakarien aurreko informazio-trukean oinarrituta.



“Hirien adimen eraldatzailea” jardunaldia

Jardunaldia Bilbao Urban and Cities Design-ek antolatu zuen EDE Fundazioan, eta Javier Dieguez, “Zibersegurtasuna: hiri adimentsuentzako zerbitzu publikoa” izeneko hitzaldian, hiri adimentsuak garatzeko teknologiaren eta zibersegurtasunaren arteko harremanaz aritu zen, eta sektore publikoa, enpresa-ehuna eta herritarrak eraldaketa digital seguru bat lortzeko inplikatu beharra azpimarratu zuen.





Trafiko-jardunaldia: “Mugikortasun berria, arazo zaharrak”

‘Zibersegurtasuna bide-segurtasunaren zerbitzura’ hitzaldian, Javier Dieguezek mugikortasuna osatzen duen ekosistemako arrisku eta kalteberatasun nagusiak eta araudi-esparru berriaren inpaktua aztertu zituen; tartean, UNECE R155 eta R156 erregulazioena. Gainera, azken gogoeta bat utzi zuen: gero eta konektatuagoak dauden ibilgailuen ingurune batean... Nork ditu nire segurtasun-giltzak?



07

Beste foro interesgarri batzuk

Beste arlo batzuetako foroetan parte hartzea funtsezkoa da erabakiak hobeto hartzeko, lankidetza sustatzeko, jardunbide egokiak identifikatzeko eta gobernantza sendotzeko. Gainera, aukera ematen du askotariko beharrak ulertzeko, adostasunak sortzeko eta kudeaketa publikoaren ikuspegi inklusiboagoa eta eraginkorragoa eraikitzeko.

Gizarte Berrikuntzako Plana eta 2030 Agenda

Gizarte-berrikuntza Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lotzen duen eta datozen urteetarako ekintza-ildoak markatzen dituen ibilbide-orria da. Plana modu parte-hartzailean egin da, eta herritar aktiboa, lankidetzako gobernantza eta kultura demokratiko sendoa sustatzeko helburua du.





Gizonduz jardunaldia

Gizonduz gizonekin eta maskulinitateekin berdintasunaren alde lan egiteko euskal zerbitzua da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak kudeatzen du, eta gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzea, parte hartzea eta inplikatzea nahiz maskulinitate anitzak eta berdintasunezkoak sustatzea bultzatu nahi du.

Gizartearentzako Segurtasun Zibila 3. Klusterraren jardunaldia

CDTIk Horizonte Europa inguruan segurtasuneko euskal aktoreen urteko topaketa-jardunaldi hau antolatu zuen, eta, bertan, Europako Batzordeak hurrengo Urte Anitzeko Finantza Esparrurako (MFF) egindako proposamenari buruz zegoen informazioa eta esparru-programaren posizionamendua (FP10) eguneratu zituzten.





Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Itun Sozialaren jardunaldia

Eusko Jaurlaritzak, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuna Sailaren bitartez, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren inguruan herritarrek hausnarketa egiteko eta haiek sentsibilizatzeko prozesua jarri du abian, modu iraunkorrean eta koherentean jorratua izan dadin.

Gogoeta horren helburu nagusia da gizarte bezala zer behar eta erronka nagusiri aurre egin behar diegun ulertzea, deskarbonizazioa jorratzeko eta 2050era begira zero isuri garbiak lortzeko.

Eragiten jardunaldia

Jardunaldiaren helburua da Euskal Administrazio Publikoaren eraldaketaren buru direnak biltzea, euskal sektore publikoko zerbitzu publikoetako, sailetako eta erakundeetako arduradunen arteko esperientzia-trukea eta kontaktua erraztuz, erronka komunak identifikatzeko, kasu arrakastatsuak partekatzeko eta zerbitzu publikoen modernizazioan eta hobekuntzan aurrera egiteko beharrezkoa den lankidetza-sarea indartzeko.

ERAGITEN
ADMINISTRAZIO BERRIA UNA NUEVA ADMINISTRACIÓN



Hedatu Kongresua

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak (DBEA) HEDATU plataformaren lehen urteurrena ospatu zuen, euskal sektore publikoko Datuak Babesteko Ordezkarien (DBO) artean ikaskuntza, lankidetza eta esperientzien trukea sustatzeko sortu izandakoa.



08

Zibersegurtasunean talentua bultzatzea

CyberLehia 2025 finala

Lehen edizioaren arrakastaren ondoren, CyberLehiak Euskadiko Lanbide Heziketako 30 ikastetxetako 450 ikasle baino gehiago bildu zituen berriro, CTF probetan oinarritutako zibersegurtasunaren erronkan. Finalean, Iratxe Martinek hartu zuen parte talde irabazleei sariak banatzeko ekitaldian. Horrez gain, hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak eskaini ziren, talentu gaztea, prestakuntza-zentroak eta sektoreko enpresak konektatzeko helburuarekin.





Euskalhack Security congress VIII

Beste urte batez EuskalHack Security Congress-en babesleak izan ginen. Sektoreko profesionalei zuzendutako topaketa honen helburua da segurtasun digitalaren arloan komunitatearen eta kulturaren garapena sustatzea, publiko interesatu guztientzat, publikoa zein pribatua izan, bereziki ezagutza teknikoa sustatuz eta hedatuz.

Tilburg Universityko negozio-eskola, Herbehereak

Tilburg Universityko Negozio Eskolako Executive Masterraren esparruan, Javier Dieguezek hitzaldi bat eskaini zien ikasleei, eta, bertan, Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia, horren jarduera-eremuak eta Euskadiko zibersegurtasunaren ekosistemaren barruan duen zeregina azaldu zituen.

Women4Cyber Euskadi

Women4Cyber Euskadik 'Breaking Barriers, Building Cyber Resilience' jardunaldia antolatu zuen, zibersegurtasunean erreferente diren emakumeak protagonista izanik. Horrela, sektorean emakumeek duten zeregina nahiz ekosistema digital seguruago bat eraikitzeko lankidetzak eta ezagutzaren trukeak duten garrantzia nabarmendu ziren.



Uni Eibar Ermua

Javier Dieguezek hitzaldi bat eskaini zien zibersegurtasunean espezializatutako ikasleei, eta Holandatik eta Irlandatik etorritako truke-ikasleek ere parte hartu zuten.

Christmas Hacking

Laugarren urtez jarraian jarduera hau antolatu dugu 42 Urduliz Bizkaia Telefonica Fundazioarekin batera. Horrela, 6 eta 12 urte bitarteko 40 adingabe baino gehiagok ikerketa digitaleko teknikak probatu zituzten Mari Domingi eta Olentzero eraso informatiko batetik erreskatatzeko. Haien adinera egokitutako dinamiken bidez, zibersegurtasuneko espezialisten azalean jarri ziren, eta Gabonak salbatzeko Interneteko segurtasunari buruzko oinarrizko nozioak ikasi zituzten taldean.





09

Herritarrak kontzientziatzea eta sentsibilizazioa

Zibersegurtasunaren eta haren jardunbide egokien inguruan inpaktu soziala sortzeko helburuarekin, informazioa eta sentsibilizazioa landu dira. Sentsibilizatzeko hainbat ekintza, programa eta kanpaina burutu ditugu adin-tarte guztietan, eta batik bat gazteenei eta kalteberenei erreparatu diegu, ikuspegi digitaletik.

“Cyberzaintza zurekin doa” kanpaina



Zibersegurtasuna eguneroko egoeretan herritarrengana hurbiltzeko ekimena da, garraio publikoan girotutako spot baten bidez. Hiru kontzeptu nagusi transmititu ziren: ‘Pentsatu, Zaindu, Errespetatu’, bereziki talde kalteberenei erreparatuta: adingabeak, haurrak dituzten familiak eta nerabe adingabeak.

Kanpainan ziberarrisku ohikoenen prebentzioa, online erosketa eta teknologiaren erabilera segurua azpimarratu ziren, eta Cyberzaintzaren ataria ezagutzera emateko balio izan zuen, errutina digital ziberseguruak sustatzeko doako informazio- eta laguntza-tresna gisa.

Horri esker, lorpen hauek izan ditugu...

4.079.103
pertsona.

241.859
erreakzio.

Ikusi webguneko eduki guztiak



“Hartu arnasa. 1.2.3. Klik” kanpaina



Online erosketa seguruagoak sustatzera bideratutako ekimena da, eta hiru egiaztapen erraz proposatu ditu, arriskuak murrizten laguntzeko berehalakotasunak eta inpultsibotasunak markatutako testuinguruan.

Ikuspegi hurbil eta praktikoarekin, dendak, produktuak eta ordaintzeko metodoak egiaztatzeko lana azpimarratu zen kanpainan eta zibersegurtasunak erosketaren ondoren duen garrantzia ere bai, lasaitasuna eta arreta informazio pertsonala babesteko eta iruzur digitalak prebenitzeko funtsezko aliatuak direla nabarmentzearren.

Horri esker, lorpen hauek izan ditugu...

3.503.414 pertsona.

22.142 erreakzio.

Ikusi webguneko eduki guztiak

“Ziberrean, Zibersegurola” kanpaina



Zibersegurtasunean kontzientziazioa sustatzeko kanpaina da, adingabe eta familiei zuzendua, Interneteko arrisku ezberdinak jorratzeko, haur eta nerabeen inklusioa, aniztasuna eta tolerantzia oinarri hartuta.

Internetera konektatutako teknologien erabileraren normalizazioak familia-ingurunean eta eskola-eremuan hainbat gai birplanteatzen ditu arriskuei buruzko ezagutza-mailaren eta horiek erabiltzeko erantzukizunaren inguruan.

Horri esker, lorpen hauek izan ditugu...

23.777 pertsona.

1.581 erreakzio.

Ikusi webguneko eduki guztiak

“CiberJendea” programa



Belaunaldi berriek, bertako digitalek, badakite teknologia erabiltzen, baina askotan ez dakite teknologia desegoki erabiltzeak zer-nolako arriskuak izan ditzakeen, eta horrek kalteberatasun-egoeretan jar ditzake.

Cyberzaintzan programa oso bat sortu dugu hezitzaile eta guraso-elkarteentzat, adingabeekin eta beste kolektibo ahul batzuekin egiten duten hezkuntza-lanean lagungarri izan dezaten, ingurune digitalean nabigazio segurua eta arduratsua sustatuz.

2025ean zehar:	274 hitzaldi egin dira.	4.363 pertsona lortu dira.

"CyberNagusi" programa



Programa honek adinekoen digitalizazioa eta zibersegurtasuna babesten du. Gero eta digitalizatuagoa den mundu honetan, adinekoek erronkak dituzte teknologia berrietara egokitzeko eta lineako arriskuetatik babesteko. Gure konpromisoa da ingurune digital seguruagoa eta eskuragarriagoa eskaintzea, teknologien erabileran haien ongizatea eta autonomia sustatuz.

Horretarako, KZguneak, Eusko Jaurlaritzak IKTetan trebatzeko duen zentroen sareak, ematen duen “Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean” ikastarorako edukiak prestatzen parte hartu dugu. 8 orduko ikastaro honetan, online erosketak egiteko segurtasuna, Interneten modu seguruan nabigatzea edo desinformazioa eta buloak bezalako gaiak jorratzen dira, besteak beste.

2025ean zehar:	226 hitzaldi egin dira.	1.162 pertsona lortu dira.	%63 emakumeak.



10
Sariak

Trofeoez gain, sari-banaketak talentua eta ahalegina ohoratzen dituzten mugarriak dira, eta bikaintasun-kultura sustatzen jarraitu beharreko eredu izatera iristen dira. Kanpoko errekonozimendua jasotzeak gizartean dugun inpaktua berresten du, eta beste batzuk saritzeak, berriz, kohesioa indartu eta guztiok jarraitzera bultzatzen gaitu, itxaropenak kalitatez eta grinaz gaindituz.

Cyberzaintzak “Umorezko Webserie Publizitarioan Balio Sozial Onena” saria jaso du



Cyberzaintzak ‘Umorezko Webserie Publizitarioan Balio Sozial Onenaren” saria jaso zuen Smile Festival, Nazioarteko Publizitate eta Umore Jaialdiaren XV. edizioan, ‘Zoritxarretarrak’ kanpainarengatik. Hain zuzen ere, euskaraz egindako miniseriea da, eta zibersegurtasuna herritarrengana umoretik eta hurbiltasunetik hurbiltzeko duen gaitasunarengatik nabarmendu zen.

Sariak 2024an sare sozialetan zabaldutako kanpaina baten inpaktu soziala azpimarratu zuen; izan ere, tonu positibo eta eskuragarriarekin, arrisku digitalen inguruan kontzientziatzea eta jardunbide egokiak modu eraginkorrean eta ulergarrian sustatzea lortu zuen.



2025eko Euskal Kazetaritza Sariak

Cyberzaintzan, 2025eko Euskal Kazetaritza Sarietan parte hartu genuen, eta Javier Dieguez, gure zuzendariak, ‘Kazetaritza digitala – Narratiba Berriak’ kategorian saria eman zion Maribel Izcueri, 5W aldizkariaren sortzaile-kide eta erredaktore-buruari.

Sariak 5W osatzen duten kazetari independenteen lana aitortu zuen, ‘Istorio txikiak, azalpen handiak’ argitalpeneko narrazio- eta argazki-kazetaritzaren bikaintasunarengatik.



11

Komunikabideetan agertzea eta kolaborazioak

2025ean erasoek zer bilakaera izan zuten

SIC aldizkaria, 2025eko otsaileko edizioa

Cyberzaintzako Eragiketen zuzendaria den Asier Martinezi SIC aldizkarian egindako elkarrizketa. Bertan, Adimen Artifizial generatiboak zibermehatxuen bilakaeran duen eragina aztertu zuen, eta gai hauen inguruko ohartarazpena egin zuen: posta elektroniko bidezko erasoen gorakada kualitatiboa, garapen-inguruneetan AAren erabilera sistematizatuarekin lotutako intzidenteen agerpena, ransomwaearen iraunkortasuna eta NIS2 bezalako zuzentarauen aplikazioak izaten jarraituko duen konplexutasuna.





"Hilabete batzuk barru ziurrenik beste eraso-sorta bat egokituko zaigu"

Diario Vasco, 2025/03/06

Euskal erakunde batzuk Errusiaren aldeko NoName057 taldearen DDoS eraso baten biktima izan zitezkeenen erregistroan agertu ziren, azpiegitura kritikoen aurkako ekintzengatik ezagutzen den taldea. Cyberzaintzak erasoaren berri aldez aurretik eman ahal izan zien, eta kaltetutako erakundeek azkar erreakzionatu zuten, sistemetan erorikorik ez izateko. Elkarrizketan, Javier Dieguez Cyberzaintzako zuzendari nagusiak baieztatu zuen Errusiaren aldeko taldearenak bezalako DDoS bidegabeko sartzeek aste asko irauten dutela: "Oraindik alerta-moduan gaude".

"Internetera konektatutako edozein erakunde arriskupean dago, eta zibererasoa jasan dezake; Euskadi ez da salbuespena"

La SER, 2025/04/22

Cyberzaintzako zuzendaria den Javier Dieguez Barriocanali egindako elkarrizketa da. Zibersegurtasunaren Euskal Agentziak babes-erakunde gisa duen bokazioaren berri eman zuen, euskal erakunde publikoak eta azpiegitura kritikoak babesteko helburu nagusia baitu. Halaber, adimenak eta beste agentzia batzuekiko koordinazioak sektore publikoari zuzendutako erasoak prebenitzeko eta arintzeko duten zeregina nabarmendu zuen.





Eskola-jazarpenetik datu sentikorrak lapurtzera: euskal familiak ziberdelikuentziaren aurka biltzen dituzten jardunaldiak

El Español, 2025/05/02

Eskola Jazarpenaren aurkako Nazioarteko Eguna zela-eta, El Español-ek Cyberzaintzaren zibersegurtasunaren arloko 'Ziberrean, zibersegurola' kanpainaren berri eman zuen. Ekimen horren mugarri nagusia, adierazitako datarekin bat etorriz, irudi intimoak zabaltzearekin lotutako ziberjazarpenari buruzko informazioa emateko eta horren inguruan hausnarketa sortzeko edukiak argitaratzea izan zen.

Euskadin zibererasoak %48 hazi dira

El Correo argitalpen berezia, 2025eko maiatza

Azken urteetan, zibererasoak %48 hazi dira Euskadin, eta iruzurra eta maula gertakari nagusiak izan dira. Cyberzaintzan horiek prebenitzeko eta azpiegiturak eta erakundeak babesteko lan egiten dugu, gure zuzendaria den Javier Dieguezek EL CORREOren berezi batean azaldu zuen bezala.





"Interneten bizikidetza positiboa errespetutik eta enpatiatik hasten da"

Tele7, 2025/06/06

Tele7-ko Agur Fakes-en atal honetan, ziberbizikidetza positiboa sustatzeko, adingabeei zuzendutako "Ziberrean, zibersegurola" kanpainaren bidez zabaldutako zibersegurtasuneko aholku batzuk errepasatu ziren. Javier Dieguez zuzendari nagusiari egindako elkarrizketa honetan, bizikidetza digital egoki baterako eta zibererasoa prebenitzeko zenbait gomendio nabarmendu zituen zuzendariak.



“Adingabeak helduak bezain arriskupean daude, baita gehiago ere”

EITB, 2025/06/13

Gure zuzendari nagusia den Javier Dieguezek EITBko En Jake programan “Ziberrean, Zibersegurola” kontzientziazio-kanpainaren helburuak azaldu zituen: ohitura digital onak sustatzea online iruzurrak, jazarpena edo erasoak bezalako kalteak prebenitzeko. Gainera, txikienek mundu digitalean gertatzen denak benetako kaltea ere egin dezakeela ulertzeak duen garrantzia azpimarratu zuen.

"Zibererasoen atzean, enpresa normal bat bezalako egitura korporatiboak dituzten talde antolatuak daude”

Onda Vasca, 2025/09/30

Onda Vascan egindako elkarrizketan, gure zuzendari nagusia den Javier Dieguez Euskadiko zibersegurtasunaren inguruan aritu zen, eta zibergurtasun-gertakariak gehitu zirela eta zuhurtasunez jokatzea eta pribatutasun digitala babesteko oinarrizko neurriak aplikatzea garrantzitsua zela azpimarratu zuen.



“Cyberzaintza zurekin doa"

Radio Euskadi, 2025/10/14

Cyberzaintzako gure zuzendaria den Javier Dieguezi “Cyberzaintza zurekin doa” kontzientziazio-kanpainaren inguruan egindako elkarrizketa. Elkarrizketa honetan, zibersegurtasunaren arloko funtsezko kontzeptu hauei buruzko gomendioei buruz hitz egin zuen: Pentsatu, Zaindu, Berrikusi eta Errespetatu.

Online erosketak egiteko neurriak

Radio Euskadi, 2025/12/16

Cyberzaintzako zuzendari nagusia den Javier Dieguez ‘Distrito Euskadi’ programan aritu zen online erosketak modu seguruagoak egiteko beharrezko neurriei eta ‘Hartu arnasa. 1.2.3. Klik’ kontzientziazio-kanpainaren aurkezpenari buruz.



Sarean ere, auzolana.
Por ti hacemos red.

Zibersegurtasun-gertakariak:
900 104 891
incidencias@cyberzaintza.eus

Autobabeserako planak:
jarraipena@cyberzaintza.eus

Informazio orokorra:
945 236 636
info@cyberzaintza.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

cyber zaintza

www.zibersegurtasun.eus